

Ester Bellver > Aktorea

"Arropa barik agertzen naiz oholtzan, baina guztiendako lana da"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Ester Bellver aktorea (Madril, 1965) ProtAgonizoa antzezlana eskainiko du gaur, 22:30ean, Bergarako Zabalotegi aretoan. Sarrerak bost eurotan eros daitezke. Harekin egin duguberra, eta esan digu Madrilo gukuelek harrera bikaina egin diotela lanari.

Gaur Bergaran egingo duzun antzezlana bakarrizketa da. Zure bizitzaren errepasoa egin duzu?

Bai, hala da. Baina edonoren bizitzaren errepasoa dela esango nuke.

Zer kontatzen duzu ProtAgonizoa lanean?

Yo *proto-agonizo* liburuan oinarritutako antzezlana da. Sei hilabetez egin nintzen testu idazten, baina istoriozko libururak askoz gehiagorako ematen du. Eta kontatzen dudun istorioaren gainean esanongo dizuet ipuin bat dela. Bakarrizketaren hasieran horixe aipatzen dit, ipuina dela.

Ze pertsonarendako da apropos antzezlana?

Promozio karteletan ikusten den moduan, taula gainean arropa barik agertzen naiz. Tarteka, antzeztzen dudun pertsonaiekin edo egoerarekin zerikusia duten objektuak erabiltzen ditut. Horretatik guztiangatik, programatzaileek eta banatzaileek askotan atek irixi dizkiote *ProtAgonizoa* lanari, adin guztietarako egokia ez zela uste zuten-eta.

Dena den, lana ikusi dutenean esan ditade bakarrizketa hasi eta berehalai jantzi barik nagoea ahaztu egingen zaiela. Antzezlana-

rekin hasi nintzeanean uste nuen 30-50 urte arteko ikusleak izango nituela, baina adin tarte horretatik gorako eta beheariko ikusleak ere joaten dira.

Antzezlana Bergarko Zabalotegi antzezlana egingo duzu, eta aurretik Aretxabaletan egin zinen. Zailagoa da herri txikietatiko aretoak betetzea?

Aretxabaletako aretoa ez zen guztiz bete, baina normalean baino jende gehiago egon zela esan zidaten antolatzaileek. Espero dut Bergaran ikusle gehiago egotea. Dena den, Madrildik kanpora egingen dudun bigarren emanaldia da -estreinaldia Aretxabaletan egin nuen-, eta ez dakit herri txikietako publikoak nola erantzuten duen.

Madrilen arrakasta izan dela esango nuke, hirugarren aldiz ematen dihardugua. Hiriburua handietan ezinbestekoa da antzezlana ikusi dutenean egingen duten

zabalpena. Azaroaren Getik abenduaren 19ra, egunero egin ditut emanaldiak.

Oholtza gainean bakarrik zaudete. Zailagoa da bakarrizketa egitea?

Ez, bakarrik ez zaudela pentsatuz gero. Publikoak eta biok elkarri eragiten diugu, eta kimi-ka berezia sortzen da gure artean.

24 urterekin hasi zinen aktore lanetan, baina aurretik, 17 urte-tik 23ra, dantzari moduan egin zenuen lan errebista musikaletan. Zer nahago duzu?

Ez dakit, bietara txiripaz heldu nintzen-eta. Dantzari nintzeanean, horretan nengoen burru-belarri Ordoko hartan, 1980ko hamarkadan. Madrilen errebista musikalak ziren nagusi; vedette-ak, komikoak, trabestak, koro-grafok... *ProtAgonizoa* antzezlanean keinu egingen diot gerozo berezi horri.

Nortzuekin egin zenuen lan errebista musikaletan?

Askorekin; bestek beste, Norma Duvalekin, Fernando Esteso-rekin, Maria Jose Cantudorekin, Angel Hitorrekin, Rosa Valenteyrekin eta Lilian de Celisekin. Rafael Lun izan zen lehen koro-grafoa, eta askotan esan zidate: "Ez ahaztu inoiz nire osatutara hasi zinela dantzari moduan".

Nolako bilakaera izan duzu orduetik hona?

Errebista musikalak utzi ondoren, Pedro Osinagaren konpainian hasi nintzen aktore lane-



Ester Bellver.

LORENZOLA

tan. Errebista musikaletako dantzari bat behar zuten emagidugu papera egiteko. Ondoren, idazle klasikoan lanak irakurtzen hasi nintzen. Antzerki klasikoaren konpainian sartu nintzen, eta urte batzuk geroago, bestek beste, Abadia antzerki taldean eta Ur Teatro taldean jardun nuen. Ondoren, beka baten bidez, Londresen

egon nintzen Philippe Gaulierren agindutara *clown* mundua ezagutzen.

Zeintzuk izan dira zue ibilidoko pertsonarik inportanteenak?

Duda barik, Jose Luis Gomez, Philippe Gaulier, Agustin Garcia Calvo eta Ines Ribadeneira.